


A T Z O K O
Ardoain

15. zbk.

200ko apirilaren 30a.

eta andoaindarrak
**ando
ainda
rrak**



Lantegiak (2)

ANDOAIN, ASPALDIKO INDUSTRIA GUNEA

Gaur egun, 'Euskaldunon Egunkaria' dagoen lekura joan izan dira andoaindar batzuk, lehen Laborde zena nola dagoen ikustera. Langile eta makina ezberdinak daude, baina gainerantzean ez dela horrenbeste aldatu esaten dute gehienek. Eraikina antzekoa da. Zein lekutan egiten zuten lan esaten dute ausartenean. Izan ere, gaur jubilatutik dagoen makina jendek igaro du han bere bizitzako urte onenak eta txarrenak. Laborde ez da denbora asko

desagertu dela. Bi hamarkada eskas. Baina garai batean Andoaingo lantegirik handiena izan zen; eta handik igarotakoak mende Erdiko andoaindar langile gehienak. Labordera ez zihoazenak Bonbasera bidea hartzen omen zuten. Ez denek noski. Bi lantegietan urteak eta urteak lan egindako solaskideek hitz egin dute Labordeen eta Sapan bizitakoari buruz. Badira hainbat kontu, gertaera, uste eta oroitzapen orriotan bilduak, atzoko Andoain gaur gogoan dutenen eskutik.

LABORDE

1926an hasi ziren lehen langileak Enrique eta Manuel Laborde anaiek eraikitako lantegian lanean. Tolosar horien enpresa apenas hasi zen zortzi makina eta langile gutxi batzuk gehiagorekin. Labordeen garai handiak ez ziren sortu bezain laster iritsi. Hori dio Iñaki Arregik, han 43 urte lanean emandako andoaindarrak. Labordera hamabost bat urte geroago sartu bazen ere, hainbat datu idatzirik ekarri ditu: "Ingenieri industrialak ziren Laborde anaiek, eta 12 lagun eta 8



Iñaki Arregi

"Ni hara joan nintzen 1941eko San Fermin egunean. Labordek 400-500 langile zituen ordurako. Hamabost urte inguruan izugarri hazi zen".

makina zituen hasierako lantegiak. Lehendabizi, Bonbas zaharra zeneko

horretan jarri zuten fabrika, ibaiaren ondoan. Geroago, orain 'Egunkaria' dagoeneko horretara eraman zuten. Brokak, fresak, makinentzako eta eskuz erabiltzeko zerrak, 'pasa no pasa', eta beste gauza asko egiten ziren. Beranduago altzairua, eta metal gogorra ere hasi ziren produzitzen".

"Oria bazterretik gaur egun 'Egunkaria' dagoen lekura igaro ziren 1934-35 inguruan, gerra zibila hasi aurretik", datuok gehitu ditu Joxe Mari Olazabalek. Bera Bonbetan aritutakoa da.


"Ni hara joan nintzen 1941ean, San Fermin egunean", jarraitu du Iñaki Arregik: "Ni sartu nintzenean Labordek 400-500 langile zituen ordurako. Hamabost urte inguruan izugarri hazi zen. 25 urte bete zituenean, 1951ean, 410 pertsona zeuzkan, eta 330 makinaria unitate, labeak eta gainontzerakoak".

Gerra hasi aurretik ez zen lantegia oso ondo ibili. Ixtekotan ere izan ziren pixka bat lehenago. Baina gerrak salbatu zituen", adierazi du Bixente Olanok. Izan ere, gerraren eraginez lantegi askoren jarduerak gora egin zuen, gure hizlariak diotenaren arabera: "Fabrika asko militarizatu egin ziren, nahi bazuten eta nahi ez bazuten ere bai". aipatu du Joxe Mari Olazabalek: "Bonbetan egiten ziren granadak, eta Labordeen espoletak. 36tik 45ra gutxi-gora-behera. Brazaleten eramatean genuen, eta brazaleten horren gainean bonba bat, sua aterako balitz bezala". "Gainera", jarraitu du Arregik, "fabrika militarizatuta bazegoen soldaduzkatik libre geratzen zen han lanean ari zena.



Joxe Mari Olazabal

"Fabrika asko militarizatu egin ziren gerra garaian, nahi bazuten eta nahi ez bazuten ere. Bonbetan egiten ziren granadak, eta Labordeen espoletak. 36tik 45ra gutxi-gora-behera".



FIESTAS DE SAN MARTIN

San Martin eguneko jai egitaraua.

ANDOAINAR PETOAK HIRU BALDINTZA

Garai hartan esaten omen zen andoaindar osoa izateko hiru baldintza bete behar zirela, Miguel Amasek dioenez: "Andoaindar konpletoa izateko lehenik behar zen Andoainen jaioa izan. Bigarrenik, La Salleko ikastetxean ikasi, eta gero Labordenean aritu. Gu Bonbasen sartu ginenez, gu %50 gara andoaindarrak", adierazi du barrez.



Miguel Amas:

"Andoaindar konpletoa izateko lehenik behar zen Andoainen jaioa izan. Bigarrenik, La Salleko ikastetxean ikasi, eta gero Labordenean aritu. Gu Bonbasen sartu ginenez, gu %50 gara andoaindarrak".

Hala ere, andoaindar asko geratzen ziren Labordera sartu gabe. Miren Zarragak esan duenez, han ez zegoen sartzetik eragina zuen pertsonarik ez bazen inguruan. Bere kasuan, bederen, horrela izan zela dio: "Labordera sartzeko aitajaunak behar ziren. Pepe Alberdirengatik sartu nintzen ni. Ni Bilbotik etorri nintzen, Sondikatik, eta nere ama joan zen Planttanera, Pepe Alberdirekin hitz egitera. Galdetu zion Labordenean niretzat lekurik egongo ote zen. Bi hilabete edo egon nintzen zain sartu nintzen arte".



Miren Zarraga

"Labordera sartzeko aitajaunak behar ziren. Pepe Alberdirengatik sartu nintzen ni. Ni Bilbotik etorri nintzen, Sondikatik, eta ama joan zen Planttanera, Pepe Alberdirekin hitz egitera. Galdetu zion Labordenean niretzat lekurik egongo ote zen. Bi hilabete edo egon nintzen zain sartu nintzen arte".

ote zen. Bi hilabete edo egon nintzen zain sartu nintzen arte. Nire gizona La Salletik sartu zen, baina hark ere Aitajauna zuen".

Aitajaunik ez zuenak lanik lortzeko aukera ere izaten omen zuen, Joxepa Ormaetxeak gogora ekarritakoaren arabera: "Ni gogoratzen naiz Labordeko nagusi Manolorengana joan zela Martina Martinez, eta hark sekulako grazia zuen. Hurrengo egunean lanean zegoen. Beti gogoratzen naiz harekin, grazia izugarria zuen."

Bestalde, Andoainen jaio ez zenik ere bazen Laborden, eta lantegia haziz joan zen heinean inguruko herrietatik jendea etortzen hasi zen: "Hasieran

Laborden ari ginen gehienak andoaindarrak ginen, baina geroago kanpoko jende izugarri etortzen zen Andoainera. Pentsa, kotxerik ez zegoenez, bizikletaz etortzen zen jendea, eta fabrika bakoitzean pabilioi handi bat egoten zen bizikletak gordetzeko", dio Arregik.

Pixkanaka hasi, gerra garaian izugarri handitu, eta urteak joan ahala indarra galduz joan zen Laborde, arra-




Bixente Olano

"Labordetarrek utzi zuten Latz hasi zenean. Hala ere, gerra hasi aurretik ere ez ziren oso ongi ibili. Ixtekotan ibili ziren pixka bat lehenago. Gerrak salbatu zituen".


zoi asko tarteko. "Duela ez asko fusio-natu ziren, eta orain Elorrión dira lanean han geratutako azken langileak. Labordetarrek utzi zuten Latz hasi zenean. Hasierako denboretatik amaiera urteetara bidea hitz gutxitan egin dugu. Hala ere, urte horietan Laborderi loturiko jarduerak oso garrantzitsuak izan ziren andoaindarrrentzat. Datozen lerroetan ikusiko dugu horietako zenbait.

APRENDIZEN ESKOLA

Gaur egungo eskola profesionaletan ikasten diren ofizioetako asko Laborden ikasitakoak dira garai hartako langileak. 1941ean sartu zen eskolan lehen promozioa, Iñaki Arregik, lehen promozio hartan izan zenak esan duenez. Berak eman digu eskolako zereginen eta funtzionamenduaren inguruko informazioa: "20 lagun sartu ginen lehen promozioan. Garai hartan ez zegoen orain bezala eskola profesionalik, Eskola Mekanikoa Laborden 1941ean jarri zen. Ofizio guztiak pasatzen joaten ginen. Orduan ofizio normalak ziren fresadorea, torneroa, ajustadorea, mantenimendukoa, linternerora, pintorea, arotza, elektrizista... Guk horiek denak pasatzen genituen, astebete egiten genuen bakoitzean, eta blockean apuntatu behar iza-



Labordeko gazteenak ofizioa ikasten.



Iñaki Arregi

"Eskolan lau urte egin genituen, eta bakoitza bere ofizioarekin ateratzen zen, espezializatua".

ten genituen makinariaren parteak, zer ikusi genuen... Gero galderak egin behar izaten genizkien lanean ari zirenei".

Olabe zuten benetako maisu, baina hura berandu etortzen zen maiz, eta haren papera ordu erdiz Joxe Goikoe-txeak betetzen zuen, "Lehenengoa zen Joxe Goikoetxea klasean, bai teorian eta baita praktikan ere", dio Arregik: "Maisua 08:30etan edo etortzen zen, eta gu 08:00etarako lanean hasiak ginen. Gogoratzen naiz: behin baino gehiagotan egoten ginen zain, eta Joxe

Goikoetxea jartzen zuen Olabek maisu bezala hura etorri bitartean. Bat edo beste bijilante egoten ginen maisuaren burua ikusten genuenerako 'agua!' 'agua!' esaten genuen kontraseña bezala. Eskolan lau urte egin genituen, eta bakoitza bere ofizioarekin ateratzen zen, espezializatua. Delineante, elektrizista, edo".

Delineante atera zen handik Arregi. Iñakik ez du esan, baina berak postu garrantzitsua omen zuen gainera: Kontramaestre, erantsi dio Arregik esandakoari Miren Zarragak. Joxe Mari Amutxastegik, berriz, hauxe: "Labordek egin duen gauzarik handiena izan zen eskolarena. Orduan oraindik ez zen eskolarik, eta han ikasi ondoren, gero makinetan ikusten joaten ziren nola egiten zen. Eskolan geundela ere dirua irabazten genuen, gauza sinbolikoa bazen ere. Baina, ikasteaz aparte eskola baino zerbait gehiago zen hura".

Langileak ongi prestaturik atera-

tzen zirela esaterakoan konforme daude hizlari guztiak. Handik ateratako asko beste lantegi batzuetara joaten zirela ere gogoan dute. Zumarragara, Mitxeliner, orohar, enpresa handietara eta asko enkargatuak izaten ziren, oso estimatuak. Laborde-tarrek besteentzat mutilak formatzen ari zirela pentsatuta, amaiera eman zioten jarduera horri.



Joxe Mari Amutxastegi

"Labordek egin duen gauzarik handiena izan zen eskolarena. Orduan oraindik ez zen eskolarik, eta han ikasi ondoren, gero makinetan ikusten joaten ziren nola egiten zen"

KULTURA JARDUBRAK

Ofizioa ikasteaz gain, beste hainbat gauza ere ikasteko aukera ematen zuen Labordeen aritzeak, Arregi gaurko gaiean jakitun denak dioenez. "Eskola mailan saiatzen ziren kultura-eta sartzen. Lau aldizkari publikatu ziren. Lau aldizkari haietan ikasleek ere parte hartzen genuen, fabrika mailan egiten genituen gauzetan. Baina fabrikaz gain ere, beste zerbitzu batzuk bazeuden. Liburutegia adibidez. 1944ean 500 ale zeuden, eta nahi zenuenak liburua etxera eramane zezakeen irakurtzeko. Barandiaran izan zen bibliotekari. Liburu teknikoak lehentasuna zuten, baina bestelakoak era baziren.

Eskursioak ere izaten genituen, 'con refrigerio'. Horieta irteera batean, San Telmora joan zirenean jan omen zuen lehen aldiz mahonesa Arregik, 14-15 bat urte zituela.

Bestalde, gauean ikasi nahi zuten tailerreko langileek ere izaten omen zituzten eskolak, kultura, historia eta bestelakoak ikasteko.

Koroa ere bazuen Labordek. 'Labeher' gizonetakoena, eta 'Lorea' emakumeetakoena beste bat. Dantzariak ere bazeuden. Taxidermia ere bazuen, fotografia ere bai..", esan dute.

Hala ere, emakumeek beste zeregin batzuk izaten zituzten lanean egon ondoren. Zarragak berak, jardunaz kanpoko orduak egin izan ditu, ongi ezkontzeko helburuarekin: "18:00etan

ateratzen ginen lantokitik, eta gero tailerrak garbitzera joaten ginen emakumeak. Gizonak etxera eta gu garbitzera. Orduan ematen ziguten 30 zentimo horregatik. Goizean ere joaten ginen. Hori egiten genuen ongi ezkontzeko. Arreoa egiten genuen diru horrekin".

Lo ez ia beste guztia lantegian egiten zen garai hartan. Etxean ez eta dutxa lantegian omen zuten, Iñaki Arregik esan duenez: "Orduan ez zen dutxarik. Gure etxean aska bat genuen. Tomate pote bat jartzen genuen zulatuta, eta harekin dutxa-

tzen ginen askan sartuta. Labordeen astero joan behar izaten genuen muda garbiarekin, eta lantegian, alde batetik bestera egiten genituen buelta batzuk, izerditu eta garbitzera! Zazpi dutxa zeuden emakumeentzat eta beste hainbat gizonetakoentzat. Hura izaten zen dutxa kategoriakoa"

"Emakumezko guarda bat egoten zen emakumeen komunean, eta gizonetakoena beste gizon bat. Han, fijo. Konbertsazioak eta entzuten bazituzten, komunean sartu eta ateratzen ez baziren, atentzioa deitzen zuten", gogoan du Zarragak.



Labordeko Lorea abesbatza.

L a n t e g i a k

FESTAK

1951ean ekarri zen gogora Laboderen 25. urteurrena, eta orduan hasi ziren San Martin jaia ospatzen. "Urtero-urtero, denborak nahiko aurrera egin arte, San Martinak ospatzen ziren, eta jai izaten genuen. San Mar-

tin festak, beste festek zuten garrantzia zuen. Pelota partiduak, lore lehia-keta, basauntza eta basurde erakusketak... Koruak berak kantatzen zuen, txistulariak bazeuden, meza, txirrindulari proba, bailableak... Sapak eta

Algodonerak era parte hartzen zuten, eta taldeak egiten ziren. Alkarren artean egiten ziren partiduak". Garai hartako esku programa eskuan duela egin ditu adierazpenok Iñaki Arregik.

LABORDETARRAK

Labordetarren kanpoko jardueraz gain, barrukoen berri ere izan dugu Joxepa Ormaetxearen bitartez, urtetan Labordetarren etxeko langile izan baitzen Txitxarraingo alaba. "Don Manuelen etxean ibili nintzen ni nes-kame. Liburu asko zituen hark etxean. Liburuak eta beste gauza asko zituz-



Joxepa Ormaetxea

"Don Manuelen etxean ibili nintzen ni neskame. Liburu asko zituen hark etxean. Liburuak eta beste gauza asko zituzten. Garai hartarako guretzako lujo handiak ziren, baina ez gehiegi".

ten. Garai hartarako guretzako lujo handiak zituzten, baina ez izugarriak".

"Don Manuel arte eta kultura kontutan ibiltzen zen gehienbat. Batez ere liburuekin, liburutegiarekin. Don Manuelek berak liburu asko zeuzkan. Baina Enriqueri buruz esaten zuten gastadore bat zela; joaten zela eskia-tzera, bere andrearekin hara eta hona. Gutxiago gastatzen zuen Don Manuelek", ekarri ditu garai hartako hainbat uste Amutxastegik.

"Herminia Don Manuelen alaba gurekin ibiltzen zen koroan, eta ez zuen ematen nagusiaren alaba zenik. Oso apala zen. Gu berarekin izaten ginen beste edozein izango balitz bezala. Orain ere hala da. Garrantzi gutxi ematen zion", esan du Miren Zarragak.

"Labordetarrek ez ziren handikiak,




Miren Zarraga

"Labordetarrek ez ziren handikiak, baina bazeuden gauza txarrak ere. Kontramaestreei-eta «sobre fantasia» ematen zieten, gauzak kontatzeagatik".

baina bazituzten gauza txarrak ere. Kontramaestreei-eta ematen zieten 'sobre fantasia', gauzak kontatzeagatik. Denak ez ziren salatariak. Primak ematen zituzten hilero, eta norbaitekin hizketan ikusiz gero multa jartzen zuten", gehitu du Miren Zarragak.

HAINBAT KONTU



Aprendizak Labordeko eskolako atarian.

Harrigarria dirudien arren, behiak zituen ikuilu bat ere ba omen zegoen lantegian bertan, eta haiek zaintzeko langile bat zegoen, Joxe Mari Amutxastegik ongi gogoratzen duenez: "Ikuilu txiki bat bazen, behiekin, eta behiak mantentzen zituena zen Alejandro Izkurrai. Behin konkursoa

izan zen kanpoan, eta bera joan zen bere behiekin. Behi oso ederrak nahikoa janda. Batek galdetu omen zion: '¿Es usted el dueño?' eta Izkurrainek erantzun: 'No. ¡Yo soy el gobernador!'. Horrelako ateraldiak zeuzkan hark". Gazteleraz hitz egin beharrak erruz sortzen zituen horrelako gertaerak.



Joxe Mari Amutxastegi

"Ikuilu txiki bat bazen Laborden, behiekin, eta behiak mantentzen zituena zen Alejandro Izkurrai. Behin konkursoa izan zen handik kanpora. Batek galdetu omen zion: -¿Es usted el dueño? eta Izkurrainek erantzun: -No. Yo soy el gobernador-. Horrelako ateraldiak zeuzkan hark".

Erdaraz hitz egiteko arazoak izaten zituzten langile batzuek. Batez ere baserrietik m etorritakoek. "Euskaraz egiten zuten labordetarrek, Manuelek behinik behin, baina garai hartan nagusiekin erdaraz hitz egiten zen", dio Roke Ansak. Hauxe gogoratu du Miguel Amasek, Ansak hori esan duenean: "Pio Huizi entzunda dut nik arotzen gainean. '¿Qué oficio tienes?', galdetzen omen zuten nagusiek. '¿Yo? Arotza' erantzun. '¿Qué es eso de arotza?', berriz ere. 'Eso de arreglar gurdís'.

BONBAS

Subijana eta Moleda aurreko zenbakian eta Laborde oraingoan aipatuta, ezin alde batera utzi Bonbas. Joxe Mari Olazabal hasi da hizketan: "Bonbasek jarri zen Andoainen kasualitatez. Bonbak bestela sekula ez zuen ezagutuko Andoain. Gerra hasi eta 36-37an Plaentzia hartuta zegoen. Eibarko frontea nahikoa luzea izan zen, bederatzi hilabetekoa, eta noiz-nahi fabrika bertara kainonazoak botatzen zituzten. Etorri ziren Beasainera, eta Beasaindik Andoainera, Beasain gerrapean hartu zutenean".

Gerra garaian izugarritzko jarduera izan zen Bonbetan, bai beste lantegietan ere: "Gerra amaitu ondoren izugarritzko krisia egon zen, eta han ere bai. Nahi zuten industria zibilera pasatzea hango nagusiek. Ikaragarritzko pieza pila egin dira lokomotorentzat, autoentzat eta kamioientzat, baita telareak ere. Baina hala ere, ez zuten industria zibilera pasatzea lortu. Industria militarra beti egon da hor. Gu ere brazaletarekin ibilitakoak gara Laborde bezalaxe".

Joxe Mari Olazabal ez zen Laborde



Roke Ansa

"Euskaraz egiten zuten labordetarrek, Manuelek behinik behin, baina garai hartan nagusiekin erdaraz hitz egiten zen". dio Roke Ansak.


sartu gazteegia zelako, berak dioenez: "Labordenera ez nintzen sartu adinik ez neukalako. Ni hamabi urterekin hasi nintzen lanean. Urtebete gehiago izan banu Labordenean hasiko nintzen".

Laborden bezala, Bonbasen ere arlo soziala ere zaintzen omen zuten. Hala esan du Olazabalek: "Ekonomatoak, adibidez, berehala jarri ziren, 38an edo. Bigarrena, toki askotatik etortzen zen jendea. uste dut erdiak kanpokoak zirela, eta horren eraginez jantokiak zeuden. Ez dakit kalitatea zer moduzkoa izango zen, baina merkeak ziren, kasik debalde jaten zuten hor. Hirugarrenik, etxebizitzak ere garrantzitsuak izan ziren. Bonbak horretan lehena izan zela uste dut. Han bertan, Grupo Calongen, 57an inauguratu ziren. 40 etxebizitza egin ziren. Sekulako etxeak egin ziren. Kasik oparitu egin zituzten 100 metro koadroko etxeak".



Joxe Mari Olazabal

"Gerra amaitu ondoren izugarritzko krisia egon zen, eta han ere bai. Nahi zuten industria zibilera pasatzea hango nagusiek".



Guardia zibilak Francori ohoreak egiten diktadorea Bonbetara etorri zutenean.

Gerra bitartean izan omen ziren Andoainen presoak lantegietan lanean. "Gerra presoak hemen egon ziren, Alondegiko etxe horretan. Bizkaitar komunistak egoten ziren han. Joaten ziren eskolatuta lanera, eskopetekin. Lanetik atera eta berriz ere hara eramaten zituzten. Abesten zituzten abesti oso politak. 'Los campos de la primavera'- eta", dio Loren Navarrok.

"Eskoltak Andoaingo jendea ziren. Obligatu egiten zituzten. Gure aita adibidez, Felix Olazabal. Hamabi orduz lan egiten zuen, eta halako ordutan guardia egin behar zuela agintzen zioten", esan du Olazabalek. Haren pasadizoak ekarri ditu gogora jarraian Amutxastegik "Guardia Zibilek goitik deitu eta esaten zioten: 'Felix, Felix iQue te se ha olvidado el fusil!'. "

Preso haietako zenbaitetik etxea topatu zuten gerra ostean Andoainen: Fabrikan bertan geratu ziren gero asko, Inaxio Garmendia esaterako.

Miguel Amasi zenbat urte egon den Bonbetan galdetzean, ez du dudarik egin, eta hilabeteak ere zehaztu ditu berehala: "Nik 48 urte eta hamar hila-

bete lan egin dut Bonbasen. Beno lan edo". Olazabalek: "Nik, berriz, 43 urte".

Laborden sobreen bitartez sari-tzen edo zigortzen zituzten langileak. Bixente Olanok Bonbetan hori gertatzen den jakin nahi izan du. Olazabalek jaso du erantzuna: "Izaten zen, niretzako eta ni bezalako gutxi-erentzako, urtean zen egunik negargaria sobrea jaso behar zutenean. Hala-

ko honek greba egin du eta erdia emango diogu, esaten zuten. Guk hori goitik ikusi, eta sufritu. Nik Plazentziako enkargatu bat banuen oso ona, Eustakio Ormaiztegi. Hark niri asko erakutsi zidan. Harekin lan egiten zuen Arantxa Badiolak hau esan zidan: 'Eustakiok kobratzen duenean, guri piska bat ematen digu'. Hortaz, erabaki nuen nirekin lan egiten zutenekin banatzea sobroko dirua.

Oso ohitura txarra izan zen sobreena. Hori guri ematen hasterako jakin nahiko nuke goi mailan zeudenek zenbat kobratzen zuten".



Loren Navarro

"Presoak joaten ziren eskolatuta lanera, eskopetekin. Lanetik atera eta berriz ere alondeginera eramaten zituzten. Abesten zituzten abesti oso politak. 'Los campos de la primavera eta".

'SABADO INGLES'

Bonbasen 'sábado ingles' izeneko lanastea hasiera hasieratik zuten, Miguel Amasek dioenez: "Fabrika hori zen ingelesa. Ingelesek jarri zuten Plazentzian larunbatena, gerra baino lehenago. Baina larunbat ingelesa egiten genuen orduak sartuta lehenagotikan. Guk 48 orduko astea egiten



Joxe Mari Olazabal

"Egunak izaten zituen normalean 8 ordu eta hiru ordu laurden. Baina tartean tokatzen bazen aste erdian jai egunik, ia hamar ordu lan egiten genituen egunean".

genuen. Bederatzi ordu egiten genituen lanean egunero larunbata arratsaldea libratu ahal izateko. Libratzen genuen ordu horiek errekuuperatzen genituelako".

"Egunak izaten zituen normalean 8 ordu eta hiru ordu laurden. Baina tar-

tean tokatzen bazen aste erdian jai egunik, erdian izaten ziren abonatuak, beste erdiak berreskuragarriak. Orduan horrelakorik baldin bazegoen ia hamar ordu lan egiten genituen egunean, gaineratu du Olazabalek.

"Lan asko izaten zen orduan", jarraitu du Miguel Amasek. "Ni gogoratzten naizena da bigarren urterako hamarrak arte lanean geratu beharra. Gauean lantegi bertako eskolara joan nahi, eta ezin zen. Sekulako lan piloa zegoelako. Bokadilola ekartzen ziguten ekonomatetik, sekulako bokadilola. Eta ardoa. Mokao hori jan, eta lanean jarraitzen genuen. Gauean beste koa-



Miguel Amas

"Bonbetan greba asko egiten ziren. bai. Bilera egin eta kalera. Jende gazte asko zen. Bonbetan herriko alprojak ibili ginen. Herriko txintxoak Labordenean".

drila bat sartzen zen", gaineratu du.

Diru kontuak ere ekarri dituzte mahaira, eta Labordeko soldatak hobeak omen zirela esan ere bai: "Nire amak Bonbetan egin zuen lan, eta nik berak baino gehiago irabazten nuen Labordean", zehaztu du Miren Zarragak.

Jornaletan batzuek beste batzuek baino gehiago irabazten zuten, baina denak izaten ziren bajuak, solaskideek aipatu dutenez. Grebak eginda igotzen omen zituzten soldatak: "Guk sekulako greba piloa egin dugu. Batzuetan jernalagatik, eta beste batzuetan politikarengatik. Urte bat izan nuen nik, gero jubilatzerakoan argi eta garbi azaltzen zen, nola garai hartan urteko soldatetan, hamabi hilabeteetan, bakar bakarrik soldata oso bat hartu nuen. Hilabete hura zein zen? Abuztu-koa. Gainontzeko guztietan zen grebaren bat", dio Olazabalek.

"Bonbetan greba asko egiten zen, bai. Bilera egin eta kalera. Jende gazte asko zen. Bonbetan herriko alprojak ibili baikin. Herriko txintxoak Labordenean", jarraitu du Amasek, beti ere Labordeneakoak aipatuz.

FRANCOREN BIXITA

"Franco Donostiara etortzen zen urtero, Aietera, eta hari zer okurrituko eta Sapara etortzea. 1958 urtea zen. Hura etortzen zenean sospetxoso guztiak kartzelara sartzen zituzten. Franco joaten zenean berriz ateratzen zituzten", hasi da Iñaki Arregi Pontxo Iriarteren kontakizuna gogora ekar- tzerakoan.

Istoriorekin Joxe Mari Olazabalek jarraitu du: "Franco etorri zen fabrika oporretan zegoela. Batzuren batzuk



Joxe Mari Olazabal

"Ni leihotik begira nengoen Franco etorri zenean. Francok naranjina bat edan zuen, diskurtso motz bat egin zuen, eta ospa. 1958ko abuztua izan zen hura. Pontxo Francori tailerra erakusten egon zen, eta handik bi hilabetera kartzelara!".

lan egitera joan behar izan genuen. Haiek ziren segurtasun neurriak haiek!

Franco etorri zenean tropak eta denak jarri ziren ohoretan. Autoritate asko zeuden. Sartu zen atzealdetik, Bazkardoko almagazetik. Ordubeteko egin zuen gauzak ikusten. Espi- kazioak ematen Don Luis Calonge

aritu zen. Argazkian ageri dena. Don Alejandroren semea. Sekzio hartan, baina, Pontxo zen perittoa, eta Don Luisek baino gehiago zekien. Pontxo Francori tailerra erakusten egon zen, eta handik bi hilabetera kartzelara sartu ez zuten ba ETAKoa zela leporatuta!".



Pontxo Iriarte (ezkerrean) Francorri tailerreko azalpenak ematen.


L a n t e g i a k

... ETA HURRENGO ALEAN ZER:

Gai askotarikoak ekarri ditugu hilabetez hilabete orri haue-tara; hurrengoan, baina, segu-ruenera adinean aurrera doa-zen andoaindarrentzat guztie-tan gogorrena gertatuko den gaiaz aritu behar dugu: gerraz, hain zuzen ere. 1936 urteko abuztuan Andoain okupatu zutenetik abiatuko gara, baina gerrako pasadizoei soil-soilik erreparatu beharrean, gerra osteko kontuetaz arituko gara. Gosea, razionamendua, estra-perloa... Horiek denak irakurri ahal izango dira hurrengo hila-beteko aldizkaritxoan. Eska ezazu zure alea egunkariak sal-tzen dituzten lekuetan.

Ari gara bukatzen

1998 urteko gabonetan hasi ginen 'Atzoko Andoain eta Andoaindarrak' aldizkaria argitara-tzen. Ordutik hamalau zerbaki kaleratu ditugu eta beste hainbes-te gaiei buruzko kontakizunak gogoratu. Baina ia denak agortu ditugu honezkero, eta iritsi zaigu, bada, 'agur' esateko garaia ere. Maiatz-ekainean bukatuko dugu saioa. Hurrengo zenbakian eman-gu dugu berri zehatzagorik.



Manuel Larramendi Kultur Bazkuna



Andoaingo Udaleko Euskara Lansaila



Andoaingo Udala



Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Sailordetzaren diru laguntzaz, Andoaingo Udalak ordaindutako argitalpena

Argitaratzaileak: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna Andoaingo Udaleko Euskara Lansailaren dirulaguntzaz. **Zuzendaritza:** Jone Larrañaga. **Erredakzioa:** Amagoia Mujika **Maketazioa:** Eva García. **Argazkiak:** Udal artxiboa. **Inprimaketa:** Sortu grafikagintza (Zizurkil). **ISSN:** 1139-7497 **Lege gordailua:** SS-1594/98. **Tirada:** 3.000 ale.